



## 4-5 ELKARRIZKETA

### Eider Elizegi mendizalearen poesiak

“Crisálidas de silencio” marrazki eta poesia liburua, kalean du Eider Elizegi, mendizale, eskalataile eta idazle lasarteoriatarrak. Bere hitzetan “poesia liburu irudiztatua” da. Eider Elizegiren “Mi montaña” lehen liburua Desnivel literatura saria eskuratu zuen 2010ean. Gero “El Hilo Gris” bigarren liburuan eskaladari buruzko testuak eta harkaitzaren argazkiak batu zituen eta orain, duela urte batzuek idatzitako poemak jaso nahi izan ditu.



## 6 KIROLAK

### Asier Sagasti judokarekin solasean

Asier Sagasti judoka gazteak aurkeztu den lehiaketa guztietan dominak lortu ditu aurten. Besteak beste, judo modalitatean senior mailako Gipuzkoako txapeliduna da eta Euskadiko bigarrena. Honetaz gain, urtarriaren 13an Gazteizen, sanboko Euskadiko txapelidun izan zen. Otsailean estatu mailako txapelketan parte hartuko du eta honetan domina eskuratzea espero du.



Sukaldari eta soldaduz jantzita, Landaberi eta Sasoeta ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleek maisuki astindu zituzten makilak San Sebastian eguna ospatzeko.



# Danbor-jole gazte eta trebeak

## San Sebastian eguna ostiralean ospatu zuten herriko ikastetxeetan

Herriko ikastetxeetako ikasle eta irakasleek ostiralean ospatu zuten San Sebastian eguna. Eguraldi txarra zela eta, hainbat emanaldi aterpean egin behar izan zituzten. Hala ere, ikasleek egindako txapela eta jantzi dotoreak soinean, Sarriegiren doinuak primeran jotzen dituztela erakutsi zuten denek guraso eta lagunen aurrean.

Danbor eta makila hotsa nagusitu ziren ostiral arratsaldean Sasoeta, Zumaburu, Landaberi eta Garaikoetxea ikastetxeetan. Guztira 600 bat haur eta gaztetxo lasarteoriatar aritu ziren San Sebastian egunean ohikoak diren doinuak interpretatu eta makilak astinduz euren eritmo eta musikarako abilezia erakusten. Ez ziren “San Sebastian Martxa”, “Tatiago”, “Diana” edota “Iriyarena” bezalako klasikoak falta izan.

### Ikastetxez ikastetxe

Garaikoetxeako ikasleek jolastokian jo zuten danborra, lehenengoz kurtso bakoitzak bere zuzendaria zeukala. Lan-

daberrin anfiteatroa txiki utzi zuten Lehen Hezkuntzako ikasleek kolore urdina nagusi zela, aretoko eserleketan zintzo eta serio errenkadatan kokatuta.

Sasoetari dagokionez, kanpoan egitea pentsatuta bazuten ere, azkenean gimnasioan egitea erabaki zuten eguraldi txarra tarteko. Aipagarria da aurten lehenengo aldiz Sasoeta ikastetxeko Buruzpe guraso-elkarteko dozena bat kide aritu zirela euren seme-alaben ondoan konpainia propioa osatuz. Zumaburun Haur Hezkuntzako txikitxoek arratsalde pasa itzela egin zuten irakasleekin batera danborra joz.



Garaikoetxea eta Zumaburun Haur Hezkuntzako txikiak aritu ziren danborra joz.

## NTRA. SRA. DE ARANZAZU IKASTETXEA (JESUITINAS)



**ATE IREKIEN JARDUNALDIA**  
JORNADA DE PUERTAS ABIERTAS

**URTARRILAK 26, 11:00ETAN**

- 0-16 urte hezkuntza: Haurtzaindegia / Haur Hezkuntza / Lehen Hezkuntza / DBH
- Kristau zentroa eta baloreen hezkuntza.
- Itundutako zentroa.
- Eskola eleanitza.
- Haur txoko 07:30etik.
- Eskolaz kanpokoak.
- Jangela.

ALTO DE ERRONDO 121, 20009 DONOSTIA  
Tel.: 943 21 23 07

WEB: <http://www.jesuitinasdonostia.com/>

## Adituak dio



**Nora Izagirre**  
Moda diseinatzailea

**M**erkealdiei buruzko zutabe bat idaztea proposatu didate, momentuko gaia baita. Eta nere artean pentsatu dut "badira ba 2 hilabete beharpen kontu hauekin gabiltzala..."

Berez ofizialki merkealdi garaia errege osten hasten da, baina makina trikimailu asmatu dira azken urteotan reklamoak gehitzeko: promozioak, bezero bereziei deskontuak, "soinekoen astea"... Duela urte batzuk oso modu zentzudun eta disimulatuan jartzen ziren eskaparateko oharrrak, eta noski, promozio hitza ongi adierazi behar izaten zen legea hautsiko zenaren beldur. Azken aldian ordea lotsa guztiak alde batera utzi eta txartel handi askoak luzitzen dira eskaparateetan norik eskaintza erakargarriagoa egin, eta katea ez da sekula amaizten...

Normalki denboraldi garai amaiera honetan, jada behar nagusiak asetuak izanik, lehendabizi geure burua justifikatu behar izaten dugu beharpen eta txolletaz disfrutatu ahal izateko. Horregatik, nire lagun batek ikasle garaitan zioen bezala, "inbertitzeko unea da", beraz ikuspegia aldatu egingo genuke, arte biltzailer batek koadro bat erosten duen bezelaxe. Hemen kalitatea eta iraunkortasuna dira klabeak, pertsonalki inbertsiorik onenak beroki eta oinetakoetan egin izan ditut.

Gizonezkoei dagokienez, orokorrean beren armairua berez nahiko basiko eta "klasikoa" denez gero, denetarik erosteko aukera dute, datorren denboraldian modaz pasako ote den beldurrik izan gabe...

Haurren armairua ere oinarrikoa izanik, datorren urterako taila bat handiago erosiko genuke.

Dena den inoiz ez da aitzakia egokirik falta izaten ongi inbertitzeko, ezta?

## Deskontuen ondoren, merkealdiak

**M**erkealdi garaian gaude eta gure inguruko dendentan deskontuak dira nagusi. Krisi ekonomikoak eraginda antza ez da aurreko urtetan bezain beste erosi Gabonetan eta denda txikiak batez ere, herrikoek, aste hauetan salmenta gehiago egotea espero dute. Herritarren artean asmoa behintzat bada merkealdietan zerbait erostea eta batzuek Olentzerok edo Erregeek utzitako diru horretarako gordeta izaten dute orain arte.

Batzuek beharrezkoak dituzten jantziak orain erosteko itxaron dute, merkeago, dirua aurrezteko asmoarekin. Beste askorentzat ordea, arropa erostea ia erretzearen antzekoa da, utzi ezin duten bizioa eta ia konpulsiboki egiten dute. Hala ere, azken hauek ere merkealdiak izaten dituzte ikus-

miran euren bizioa areagotuz. Hauen helburua beti egunean egotea da, tendentziak jarraitzea.

Merkealdi hauek baliatzeko asmatan, beharrezkoak direnak eta basikoak, urtean zehar erabiltzen ditugunak eskuratzeko gomendatzen da jantziei dagokionez. Deskontu hauek baliatzea garrantzitsua da, baina neurrian, behar ditugun gauzen zerranda eta aurrekontua aurrez finkatzea dira gomendio nagusiak. Horietaz gain, komeni da kontutan izatea beherapena salneurrian izan behar dela eta ez kalitatean, beti etiketak ondo begiratu prezioa bitan egon ez dadin, artikulua itzuli daitekeen jakitea komenigarria da, beraz galdetu dendariari eta beti ondo gorde erositakoaren frogagarria. Gogoan izan eta aprobetxatu merkealdi garaia.

## Hitz eta pitz

## Merkealdietan erosten al duzu?



**Olga Garcia**

Ondo arautua egon beharko litzateke, garaz kanpo deskontu bat ere ez onartu, eta kitto. Ni neu ez naiz beharpenez asko baliatu. Normalean beharra daukadanean erosten dut. Gehiegi begiratu gabe. Argi dago biak behar direla, urte osoko bezeroa eta beherapenetakoa ere bai. Baina, lehen bezala, beherapen onak, epe jakin batean, denboraldi horretako den dena likidatzeko.



**Aitor Retegi**

Egia esan ez daukat merkealdietan erosteko ohitura handirik. Behar dudanean erosten dut eta ez asko gainera. Arropa gehiena oparitu egiten didate, eta gutxi daukadanean, edo zahartuta, joan eta dena batera erosten dut normalean. Dena den, beherapenen kontua, gabonena bezala asmakizun bat da, udan, udazkenean, neguan... beti beherapenetan daude.



**Carlos Alonso**

Ez asko. Prezioei begira ibiltzeak urduri jartzen nau, ez daukat pazientzia handirik. Emazteak, bai, behin eta berriro begiratu ditu. Nik, pinoi finkoa... merkealdia izan edo ez, gustatzen zaidana hartu eta kitto. Gaur egungo egoeran ondo dator beherapena, egoten da merezi duenik. Ni ez naiz zalea, baina emazteak egin ditu erosketak. Asmatzen du, ondo ezagutzen nau.



**Manoli Karrera**

Ez dut ia arroparik erosten. Merkealdietan ez naiz ibili, ez neukan beharrik, denetarik daukat. Zertarako begiratu bada? Egia esan, beti denda berdinerara joaten naiz eta beherapena egiten didate. Beharrik ez dagoenean ez da erosi behar. Beharrik izan gabe merkealdietan erostea gaizki dago. Berokia udazkenean erosi nuen, beti hartzen dut zerbait moder-noagoa, baina, ez gehiegi.

## Iruditan

## Beti dotore



Gure Gipuzkoako bildumatik 1935. urteko argazkia Hipodromoan.

Merkealdi garaia da eta herriko denda guztiek dute erakusleihoetan ikus daitekeen, eskaintza zabal eta deskontuak erakargarriak. Egun hauetan herritar asko deskontu hauek baliatuko dituzte arropa erosteko eta azken tendentzia direnak eskuratzeko. Beti egunean egotea da askoren desioa. Garai batean ere maila, estatusa erakusten zuen arropak, eta hauek ospakizun eta ekimen berezietan erakusten zituzten harro zaldi lasterketetan adibidez. Modak markatutakoak ikusteko aukera zegoen gurean Hipodromora joaten ziren ikusleen soinean. Haien soineko, traje dotoreek eta txanoek atentzioa deitzen zuten inguruko baserri giroan.

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea



## Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA



GFako Kultura eta  
Euskara Departamendua

## Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

## Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

## txintxarri

## Erredakzioa:

Nerea Ezagirre, Jon Altuna I.,  
Maider Azurmendi, Jon Altuna E.  
bntxarri@bntxarri.info

## Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

## Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Jone M.  
Hernandez, Oihana Salazar,  
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

## Informatikoa:

Xabier Amador



## UDALA

# Irudi berriaren aukeraketa

Alderdiak, elkarteek eta herritarrek erabakiko dute irudi berria

**Lasarte-Oriako Udalaren irudi korporatiboa berriaren lehiaketara aurkezteko epea bukatu zen urtarrilaren 13an eta orain logo berria aukeratzeko momentua iritsi da. Alderdi politikoen, elkarten eta herritarren iritzia izango da kontuan hau aukeratzeko.**



Udalaren irudi korporatiboa erabakitzeko hiru epaimahai izango dira.

Lasarte-Oriako Udalaren irudi korporatiboa berriaren lehiaketara guztira 74 parte hartzaile aurkeztu dira Udalaren datuen arabera.

Eta Udalak adierazi duenez, kopuru honek harridura sortu du Udalean, "lehiaketa martxan egon den bitartean Udalean dei asko jaso ditugu informazioa eta argipenak eskatzen. Hau dela eta, bagenekien jende askok parte hartuko zuela, baina horrenbeste izateak harritu egin gaitu".

## Aukeraketa

Hurrengo pausoa lan hauen guztien artean bat aukeratzeko izango da. Horretarako hiru epaimahai izango dira: lehenengo Udaleko alderdi guz-

tien artean osatutakoa, bigarrena herriko elkarte edo taldeetako ordezkariekin osatua eta azkena herritar guztiak osatuko dutena.

Udalak azaldu duenez, lehenengo epaimahaia, alderdiana, aurreko asteazkenean bildu zen. Gutunazal guztiak ireki eta barruko dokumentazio guztiaren konprobaketa egin zuten.

## Elkartei deialdia

Aste honetan berriz, bigarren epaimahai osatuko da.

Horretarako, herriko elkarte eta taldeei gutunez gonbidapena egin zaie Udaletik

hurrengo ostegunean urtarrilak 24 Manuel Lekuona Kultur-etxeko hitzaldi aretorea agertu daitezen.

## Erakusketa eta internet

Azkenik, urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra Manuel Lekuona Kultur-etxeko kafetegian lan guztiaren erakusketa erakusketak jarriko da.

Honetara hurbiltzen diren herritarrek epaile izateko aukera izango dute haien bozka emanaz.

Honetaz gain, interneten erakusketa bertuala jarriko da eta bozkatzeko aukera izango da.

## OINATZ

## Izena emateko azken eguna

Oinatz taldeak urtarrilaren 26an Gaintza eta Larraitza eragingo duen irteeran izena emateko azken eguna da gaur.

Autobusa Jalgitik aterako da 10:00etan eta Gaintzaraino eramango ditu parte hartzaileak. Handik ibilbidea egingo da Larraitzeraino eta bertan, haurrek Txindokiko Itzala abentura parkean aritzeko aukera izango dute. Ekintza 2005. urtean edo lehenago jaiotakoei zuzenduta dago. Abentura parkea itxita dago eta soilik taldeentzat zabalitzen da, beraz, beharrezkoa izango da 15 umeen taldea osatzea. Bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du eta Ttakuneko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek 12.

## KASTAROA

## Janari manipulatuak ikastaroa

Elkolab. S. Coop. enpresak udalarekin elkarlanean arrisku handiko janari-manipulatuak ikastaroa antolatuko du. Honakoa ostalaritzako sektoreari zuzenduta dago eta Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukia landuko ditu. Ikastaroa urtarrilaren 30ean emango da Anbulatorioko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan, 16:15etik 20:15era. Prezioa 45 euro eta prezio berezia langabetuentzako 35 euro. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, deitu OMIC 943 361 605 edo Elkolab, S.COOP. 943 533 303 telefonora.

## ZINEMA

## Zinema saioetarako bonoak salgai

Lasarte-Oriako Udaleko Kultura sailak zinema saioetarako bonoak jarri ditu salgai. Bonoek hamar saioetarako balioa dute eta haurrentzako, zein helduentzako emanaldietarako dira. Haurren bonoak 25 euro balio ditu eta helduena osteguneko bonoak 35 eurotan dago ekuragarri eta igandekoa, 45 eurotan.

Bono hauek astelehenean ostiralera eros daitezke Manuel Lekuona arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Bonoak 2013ko abenduaren 31a baino lehen erabili behar dira.

## UDALA

## Plazei izena jartzeko kontsulta

Parte-hartze eta kultura sailek udal erabakietan herritarren parte-hartzea sustatzeko ekimen berria dute martxan, "Jarri izena plaza hauei".

Udalak San Pedro eliza ondoko eta Loidi-Barreneko Babes Ofizialeko etxebizitzaren aurreko plazei izena jartzeko galdeketa da. Kultura sailak toponimien lanketa egin ondoren plaza bakoitzari izena jartzeko bi aukera proposatu ditu: San Pedro plaza eta Loidi-Barreneko plazari Elizatze plaza edo San Pedro plaza eta Loidi-Barreneko plazari Hilerri plaza edo Tximistarreta plaza.

Iritzia emateko parte-hartze postontziak edo [www.lasarte-oriasarean.eu](http://www.lasarte-oriasarean.eu) webgunean. Azken eguna urtarrilaren 27a da.

## MUSIKA

## Arramazkaren kontzertua Jalgin

Arramazka taldeak Argilunpetan azken diska aurkezteko lehenengo kontzertua egingo du Jalgi Kafe Antzokian ostiralean, urtarrilak 25, 23:00etan.

Aitzol eta Aroa Lasaren lan berriaren bederatzi kanta jasotzen dira eta dagoeneko Amalur Eskolan eta Gure Etxea tabernan salgai dago 10 eurotan. Urte eta erdiko lanaren ondorioa da Argilunpetan eta uztaile eta abuztuaren grabatu zuen taldeak Iruñean. Kontzerturako sarrera doan da.

## NEGUKO IKASTAROK

## Izena emateko azken egunak

Manuel Lekuonako neguko ikastaroetan izena emateko azken eguna urtarrilaren 23a izango da, asteazkena. Ohi bezala ikastaroen eskaintza zabala da argazkigintza, bollywood, txalaparta, biodantza, risoterapia, manga komikigintza, pokerra, funky, zeinuen mintzaira, puntu eta patchwork eta jarrerak zaintzeko prestakuntza ikastaroa.

Izena ematea [www.lasarteoriasarean.eu](http://www.lasarteoriasarean.eu) gunean egin behar da. Ikastaro guztietan hastapen maila eskainiko da eta ikasle kopurua mugatua da.

# Oporrak Bakean-en aurkezpen saioa

"Hijos de las Nubes" dokumentala ikusi ahal izango da ostiralean Manuel Lekuona kultur etxean 19:00etatik aurrera. Proiektzioa Gizarte Zerbitzuetatik antolatuko dute eta bide batez Oporrak bakean 2013 ekimenaren aurkezpena egingo dute bertan.

Proiektzioaren ostean Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, Maite Higuero teknikari buruarekin batera Oporrak Bakean programaren berri emango dute.

Aurten ere Saharako haurrak uda garaian etxean jasoko dituzten familiak behar dira eta honekin informazioa eman eta esperientzia gertutik ezagutzeko aukera eskaini nahi dute saio honekin.

Aurkezpen honetan ere Saharako haurrak etxean hartzen dituen familia baten esperientzia lehenengo pertsonan kontatuko du Yaiza Ruiz herritarrek.

## Dokumentala

"Hijos de las Nubes" Donostiako Zinemaldian ikusi ahal



Donostiako Zinemaldian aurkeztutako dokumentala arrakastatsua izan da.

izan zen. Ipar Afrikak egun bizi duen asaldura politikoa aztertzen da honetan, baita Mendebaldeko potentziek, batez ere AEBek eta Frantziak, beren nazioarteko estrategia politikoetan Realpolitik delakoa gauzatzeagatik duten erantzukizuna ere. Politika horiek ezegonkortasun handia eragin dute eta indarkeria eta kaosa ekarri.

Honela, Saharako egoeran oinarritzen da filma. Afrikako azken kolonia da Nazio Batuen Erakundearen arabera,

eta gerra jasateko zorian dago. Dokumentala bidaiari pertsonal bat da eta Javier Bardem da honen gidaria.

Ikusleak munduko diplomaziaren bide bihurtuak eraman dituzten dokumental eta utziak dagoen herriaren errealitatea erakutsiko du, egoera horretara nola iritsi den ulertu eta Afrikan beste gerra bat nola saihestu bilatzeko asmoarekin.

Gizarte Zerbitzuek saio berezi honetan parte hartzea animatzen ditu herritarrek.

Eider Elizegi Mendizale, argazkilaria eta idazlea

# “Irakasle ona izan dut natura”

■ "Crisálidas de silencio" poesia liburua argitaratu du ■ Aspaldi egindako poema eta marrazkiak bildu ditu modu berezian ■ Abian du www.eiderelizegi.com web orrialdea

*“Crisálidas de silencio”, marrazki eta poesia liburua, kalean du Eider Elizegi, mendizale, eskalatazile eta idazle lasarteoriatarrak. “Poesia liburua irudiztatua” dela esan digu berak Pirinioetatik. Biologoa da ikasketez, baina 2010ean bere lana eta etxea utzi zituen, eta ordutik tarteka lana eginez, idatziz eta argazkiak ateraz bizi da, han eta hemen, sarri bere furgonetan, alde batetik bestera. www.eiderelizegi.com web orrialdean ikusi daitezke bere biografia, medio ezberdinetan egin dizkion elkarrizketak, mendian eta bidaietan ateratako argazkiak, Marokora eta Peru-Boliviako Andetara egindako joan-etorriak...*

Jon ALTUNA IZA

Eider Elizegiren “Mi montaña” lehen liburua Desnivel literatura saria eskuratu zuen 2010ean. Gero “El Hilo Gris” bere bigarren esperientzia eskaladari buruzko testuak eta harkaitzaren argazkiak batu zituen eta orain, “Crisálidas de silencio” izenburua duen liburuan, duela urte batzuk idatzitako poemak jaso ditu.

demo itxura dauka liburua, eta testuen maketazioa ere tankera horretan egina dago. Tipografia ugari erabili ditugu, baina, ez, nire eskuz idatzitako ezer ere ez da ageri.

**Gaztelaz idatzi ohi duzu... Euskaraz ba al daukazu zerbait idatzita?**

Bai, asko. Baina batek idazten duenetik argitaratzen dena tarte handia izaten da, eta tarte horretan, idazleaz gain, beste askok hartzen dute parte.

**“Vagamontañas” blogean idazten duzu... Idazkera poetikoa daukazula diote.**

“Vagamontañas” bloga itxi egin nuen duela hilabete batzuk. www.eiderelizegi.com web-gune berria daukat orain.

Denok bezala, errealitateari begiratzeko nire modu pertsonala daukat, eta nire idatziek hori isladatzen dute.

**“Crisálidas de silencio” izena bera ere bitxia da, “isiltasun krisalida” horrekin zer adierazi nahi duzu?**

Aurreko galderan erantzun dizudanean ildo beretik, zalantzarik gabe, begiak jasozten duen iruditik, arazoimenaren liseriketaren ondoren datorren isiltasunera doan bide ilun eta labor horretan kokatzen dira poema hauek.

**Zertaz idatzi duzu poemetan? Begiradatik isurtzen diren irudiak garatzen dituzte poema hauek. Arrazoiak beregan hartu eta bere logikaren ereduetan klasifikatu aurretik gauzak hartzen duten tankera irrazional horretan sortzen diren irudiak joratzen eta zabaltzen ditu.**

**Nolako poesiak dira?**

Tripekin irakurtzeko, tripekin idatzita daude. Testu sugerentek dira. Gure begiek irudiak eta sententziak jasotzen dituztenean, buruak berehala saikatzatzen ditu bere eskemen arabera. Baina begitik arrazoi-menera doan tarte horretan bada eremu labor bat, non gauzak beste esanahi bat jaso dezaketen.


Askotan ohartzten ez bagara ere, itzal horiek norberaren bizitza asko baldintzatzen eta zuzentzen dutela uste dut. Sin-biologia pertsonal baten sorlekua da eremu hau, eta bertan garatzen dira poema hauek.

**Poema batzuek eskuz idatzita daude liburuan marrazkiarekin batera?**

Ez. Maketazioa Rebeka Elizegi, nire ahizpak sortutako diseinu grafikoren arabera garatu nuen. Aspaldiko materialak direla eta, apunte koa-



Apunte kuaderno itxura dauka liburua. Rebeka Elizegi, Eiderren ahiza arduratu da liburuen diseinu grafikoz. EIDER ELIZEGI



Eider Elizegirenak dira liburua ilustratzeko poeman ondoren erabili diren marrazkiak ere. EIDER ELIZEGI



Siarte argitaletxeak asko zaindu du liburuen inpresioa eta azken ukitua. E. ELIZEGI

**“Denok bezala, errealitateari begiratzeko nire modu pertsonala daukat, eta nire idatziek hori isladatzen dute”**



2010ean kaleratu zen “Mi Montaña” liburuan, Mont Blanc-eko Gotter aterpeen, 3.817 metroan 4 hilabetez bizitako esperientzia kontatu zuen. FRANK HIEN

**“Irudiak dastatzeko ahalmena jorratzeko aukera eskaini dit biologiak. Mikroskopia mundu zoragarriak erakusten ditu”**

**Mendia eta idaztea uztartu dituzu. Zer moduzko harrera izan zuten aurreko liburuek?**

Idatzeko orduan, idatzeko prozesua bera izan da beti nire helburu nagusia. Hortaz aparte, ondoren argitaratuak izan diren liburuei dagokienez, pozik nago izan duten harrerarekin.

Asko ikasteko aukera eskaini didate, lagun berri onak ekarri dizkidate, eta hori propina ezin hobea da.

**Oraindik ere idazten eta marrazten al duzu mendian? Idatzeko joera nire begiradari**

lotuta egon da betidanik. Begiratzea, niretzat idaztea da. Azken urte luze hauetan mendian ibili naizenez, mendiar buruz idatzi izan dut. Eta noski, idazten jarraitzen dut.

**Marrazkiak eta maketazio berezia ditu, “Crisálidas de silencio” liburua berriak...**

Liburu bisuala da. Marrazkiak poemen garai berekoak dira, eta espazio berdin batetaz hitz egiten dute. Horregatik, osagarriak dira. Azken bolada honetan gutxiago marraztu ohi dut, baina garai haietan ideia, irudi edo sentipen batzuk marraz-



2011ko “El hilo gris” liburuan harkaitzen argazkiak hartu jarri zizkion. MIKEL TORRABADILLA

tuaz idatziz baina hobeto adierazten nituen.

**Siarte, liburu desberdinak argitaratzeko gogo duen argitaletxe berria dela esan du Roge Blasco. Ados al zauden?**

Bai, noski. Argitaratzen dituen liburuez bizitzeko beharrik ez duen argitaletxe bat den heinean, produktu arrisksuak kaleratzen ditu. Edizioak oso mimatuak daude: argitaletxe arruntago batek ez litzuke inoiz paper, inpresio, eremate aldetik hain liburu zainduak aterako. Lagunartean lan egiteko duen modua ere oso interesgarria iruditzen zait.

**“Vagamontañas” gisara definitu duzu zure burua; noma-da xamarra zara, ezta?**

Lokarriak, jentilizioak eta etiketak ez ditut gehiegi maite.

Azken urte hauetan alde batetik bestera ibili naiz ekipajez arin, edozein lekutan etxean nagoela sentituz. Lurrarena naiz, eta lurrean zehar nabil.

**Pirinioetan egoten al zara askotan? Alpetan? Bestela nora bidaiatzen duzu?**

Pirinioetan batez ere, furgoneta-ekin ibiltzea gero eta zailagoa den arren. Lurrarekin lotura zuzena duten pertsonak interesatzen zaizkidenez (eta diruz urri ibiltzen naizenez), ez dut leku garestietara bidaiatzen.

**Aspaldian egin al duzu Europan ala Europatik kanpo mendiko eskalada bide “handirik”?**

Iaz Marokon ibili ginenean orduz geroztik ez dut atzerria bidaiatu. Oso bidaiari geldoa naiz.

**Eta ba al duzu egiteko beste asmo edo proiekturik?**

Bai, noski... baina e! Iritsiko da.

**Biologia ikasteak zer eman dizu? Aritu zinen mikroskopia artean lanean mendira jo aurretik...**

Txikitandik natura irakasle ona izan da niretzat, seguru asko horregatik ikasiko nuen biologia. Gauzak ulertzeko egitura bat eman didala suposatzen dut.

Begirada horritu dit agian. Gorputza eta bizitza ulertzeko modu bat eskaini dit. Eta irudiak dastatzeko ahalmena jorratzeko aukera (mikroskopia mundu zoragarriak erakusten ditu).

**Zientzialaria letra artean, zientzia eta letrak elkarrekin daude zuzan...**

Zientzia eta letrak erabat loturik daude, gure hezkuntza sistemak banandu egiten dituen arren. Matematika puruak erabat poetikoak dira; lengoia eta arteak, gainontzeko guztiak bezala, zientziak aztertzen duen errealitatearen egitura bera daukate. Betidanik saiatu naiz bi mundu hauetaz aldi berean gozatzeko.

**IES BHI LASARTE-USURBIL** **bihe**

**LASARTE-USURBIL INSTITUTUA**

Zure aukera

- D.B.H.
- BATXILERRA

lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1- LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277

Prezio berriak fotodeplazioan ETORRI eta GALDETU

**MAITE**

**ESTETIKAKO ARRETOK**

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpejiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Ustin Kalea 2/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Asier Sagasti Judoka

# “Emaitzak lortzeak pozten zaitu”

■ Judon Gipuzkoako txapelkun eta Euskadiko txapelkunordea da ■ Sanbon Euskadiko txapelkun titulua eta Espainiako txapelketarako txartela lortu zituen lehengo astean

**LOKE taldeko judo sailak judoka harrobi ederra duela erakutsi du berriro ere. Asier Sagasti gazteak aurten aurkeztu den lehiaketa guztietan dominak lortu ditu eta besteak beste, judo modalitatean senior mailako Gipuzkoako txapelketa da eta Euskadiko txapelketan bigarren izan zen. Honetaz gain, urtarrilaren 13an Gazteizen, sanboko Euskadiko txapelkun izan zen eta otsailaren hasieran Espainiako txapelketan parte hartuko du. Bertan domina lortzeko asmoarekin doa.**

Nerea EIZAGIRRE

Asier Sagasti gaztea lau urterekin hasi zen judoan. Hamasei urte daramatza kirol hau egiten eta hainbat domina lortu ditu bere kirol bizitzan. Hala ere, aurten denboraldi bikaina egiten ari da, Gipuzkoako txapelkun da eta Euskadiko txapelkunordea. Harekin bildu gara solasalditxo bat izateko.

**Nola hasi zinen judoa egiten?**

Zumaburuko eskolan hasi nintzen Mikel Pongarekin. Gurasoek apuntatu zidaten eta gustatu zitzaidan. Mikel Pongak utzi zuenean, Gorkarekin hasi nintzen eta hamar urte edo daramatzat berarekin.

**laz senior mailan lehiatzen hasi zinen. Zein desberdintasun aurkitu zenituen? Jendea indartsuagoa da,**

zuk 19 urte zituzu eta 23 urtekoekin hasten zara lehiatzen. Eta pisua, indarra... Judoan ongi egiten dute eta haien mailan egon behar duzu. Gainera, pisuz igo nintzen.

**Orduan, zein pisutan zaude orain?**

90 kilo azpikoekin nago. Ni orain formaz baxu nago, 84 kilo ditut eta ia 90 kilo dituztenekin borroka egitea nabari da. Jendea pisu juxtuarekin doa.

Nire pisua berez 81 da baina pasa nintzen. 90 kiloko mailara igo eta ongi joan zait orain arte.

**Gipuzkoako txapelketa irabazle izan zara eta iaz**

**bigarren izan zinen. Garapena izan da, ezta?**

Asko entrenatuz gero emaitzak datozela ikusi dut. Lehen gutxiago entrenatzen nintzen eta emaitzak hor zeuden. Pixka bat entrenatuta emaitza hobek daude.

**Euskadiko txapelketan bigarren izan zinen...**

Bai. Horri esker gainera, Euskadiko selekzioarekin ari gara entrenatzen. Bi edo hiru entrenamendu egingo ditugu eta gero taldea aterako dute. Espero bertan egotea.

Izan ere, Espainiako txapelketako eremuko txapelketa izango dugu Zaragoza edo Iruñean, uste dut apirilaren 27an izango dela. Eta bertan egon nahi dut.

**Sanboko Euskadiko txapelkun izendatu berri zara Gazteizen...**

Borroka pare bat egin eta txapelkun izan nintzen.

Lau joan ginen eta laurak lehenengo postuetan geratu ginen. Batzuk borroka ere egin zuten eta oso emaitza onak egin dituzte. Eta domina sorta batekin etorri gara.

**Eta Espainiako sanboko txapelketan ere izango zara?**

Saillkapena lortu nuen Gasteizen txapelkun izateagatik.

Espainiako txapelketetara joateak zoriontasuna ematen du. Duela bi edo hiru urte txapelkun izan nintzen eta ea aurten ere errepikatzen den.

**Espainia eta Euskadi mailan desberdintasuna dago lehiakideei dagokionez?**

Bai. Euskadiko mailan azken finean aurkariak ezagutzen dituzu eta badakizu zer egiten duten. Beraz, praktikatu dezakezu tamian.

Baina Espainiakoetara zozenean andaluziar baten aurka egin behar duzu lehiari eta ez dakizu ezker edo eskuina den edo zer egiten duen hoberen eta arreta handia behar duzu borroketan.

**Momentuan erabaki behar da borroketan...**

Borroka mundu bat da eta argi izan behar duzu zer egiten duzun eta seguru egon behar zara.



Asier Sagasti taldekide eta entrenatzailearekin Angeluko txapelketako atseden batean

**Aurtengoa zure denboralditik hoberena dela esan daiteke?**

Bai. Aurten joan naizen lehiaketa guztietan domina lortu dut, bigarren, lehenengo eta hirugarren. Eta oso pozik nago, entrenatu eta gero emaitzak lortzeak asko pozten zaitu.

**Zenbat entrenatzen duzu? Entrenamendu gogorak al dira?**

Astean hiru edo lau egunetan entrenatzen dugu. Batzutan Hondarribira goaz entrenatzera eta han gogorrago izaten dira entrenamenduak.

Hemen txiki asko dago eta han gure mailako jende gehiago eta hobeago dago. Ostegunetan joaten gara eta asko hobetzen dugu han.

**Sanbo eta judoren artean desberdintasun handia dago, ezta?**

Niretzat errazagoa da sanboa. Judon aurten araudia aldatu dute eta ezin dira hankak ukitu ere egin. Ni hankekin hobeago naiz eta hankak heltzen ere. Horrek puntu asko ematen dizkit eta nik uste Espainiako sanbo txapelketan hobeto egingo dudala, judon baino.

**Nazioarteko mailan txapelketaren batean parte hartu al duzu?**

Angelun izan nintzen denboraldi hasieran, gure kabuz joan ginen eta ongi joan zen. Lau konbate izan nituen, bi galdu eta hirugarren geratu nintzen.

Normalean ez gara horrelako txapelketetara joaten eta horrela bada gure kabuz goaz, guk ordaindu behar dugu guztia.

**Etorkizuneko kirolari izan zinen duela urte batzuk...**

Bai horrela da. Espainiako txapelketan domina lortzea-

gatik izendatu ninduten eta diru laguntza eman ziguten 600 bat euro. Aurten esperantzaz horrekin noa sanbo txapelketara, domina lortzeko gutxienez. Eta dirua ematen badute hobeto.

**Futbolaria ere bazara, Ostadarreko Ohorezko mailako Erregionaleko atezaina. Taldekako eta banakako kirolak egiten dituzu beraz. Zein da desberdintasuna?**

Hemen zuk zure garapena lortzen duzu eta taldean denok batera egon behar gara eta denon artean atera behar dugu partida aurrera.

**Gogorra da bi kirolak bateratzea?**

Bai, batzutan korrika eta presaka nabil tamatik futbol zelaira. Batzuetan bi kirolak egun berdinean ditut eta toki batetik bestera korrika joan behar dut. Normalean ez dut arazorik izaten.

Baina astean zehar kirola egiten dut egun guztietan eta gogorra da. Etxera iritsi eta ikasketak daude. Hori garrantzitsuak dira gainera, hiri garrantzitsuak dira etorkizunean. Beraz, ikasketentzat ere txoko bat dut arratsaldean edo gauean.

**Eta lesioei beldurrik ez al diezu?**

Hamasei urtetatik bateratzen ditut bi kirolak eta lesio gehienak judoan izan ditut. Baina ez diet beldurrik lesioei.

**Bi kirolak egiten jarraitzeko asmoa duzu, beraz?**

Bai horrela da. Ahal dudan bitartean gutxienez saiatuko naiz. Entrenatzaileek ez didate eragozpenik jartzen eta oso pozik nago bi kirolak egiten. Judoa asko gustatzen zait eta futbola ere bai. Nire asmoa beraz bietan jarraitzea da.



Asier Sagasti taldekideari giltza egiten.

— Agenda —

Osteguna 24, 21:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxean



Familiako oroitzapenak

Ostegun zinea atalaren barruan, "Le Skylab" film frantsesa, Okendo Zinema taldearen eskutik. Albertine da protagonista, eta, familiarekin bidaia bat hasi behar duenean, 10 urte zituenean egin zuen beste bidaia bat etorriko zaio gogora. Bretaniara joan ziren urtebetetze bat ospatzera 1979. urte hartan. Sarrerak leihatilan, 4,65 euro; internetez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA  
Larunbata 26, 18:00etan

"Ali Baba eta 40 lapurrak" antzezlanaren eskainiko du Borobil antzerki taldeak. Haurrei zuzendua. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,24 euro.



Astigarraga

Literatur solasaldia

UDAL-LIBURUTEGIA

Astelehena 21, 19:30ean

Jorge Carrerok zuzenduta, Michela Mur-gia-ren "La acabadora" liburuaren solasaldia izango da.

Usurbil

Jardunaldiak

SUTEGI ETA POTXOENEA

Osteguna 24, egun osoa

Fiare eta Via Campesinaren antolatuta "Finantza etikoak eta elikadura burujabetza" jardunaldiak. Urtarrilaren 25ean, Zerainean izango da. Izen ematea 10 euro dira eta finantzaketaburujabetza@gmail.com helbidean egingo da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 27, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Astrix al servicio de su majestad" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.



Igandea 27, 19:30ean

Helduen zinea atalaren barruan, "Le Skylab" film frantsesa, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 5,85 euro; internetez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.



Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 25, 23:00etan

Lasarte-Oriako Arramazka taldearen Argi-lunpetan diskaren aurkezpena izango da.

Bideo-foruma

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 25, 19:00etan

Gizarte Zerbitzuek antolatuta Sahara eta errefuxiatuei buruzko "Hijos de las nubes, la última colonia" dokumentalaren emaldia antolatuta du. Ondoren, Oporrak bakean egitasmoari buruz hitz egingo da.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Urtarrilaren zehar

Naiara Etxeberriaren margoak ikusgai izango dira. Akriliko eta oleo margoz marraztutako loreak dira.

Erakusketa

SUTEGIKO ERAKUSKETA ARETOA

Urtarrilaren 27ra arte

Eduardo Arbeloa margolariaren lan erakusketa.

— Herritarren txokoa —

Herrira elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, urtarrilaren 25ean Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da urtarrilaren 24an, osteguna, arratsaldeko 17:00etan.

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan urtarrilaren 28an, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odolordekazezina da!

Biyak Bat elkarteak kuota

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak bere bazkideei jakin arazten die urteroko kuota martxoan amaiera arte ordaindu ahaliko dela egoitzako bulegoan goizeko 10:30etik 12:30era.

85 urtetik gorako bazkideek ez dute ordainketarik egin behar.



Korrikako laguntzaile txartelak

Korrika 18-ko laguntzaile txartelak honako lekuetan daude salgai: Jalgi Kafe-antzokia, Artizar taberna, Ilargi taberna eta Muntteri-AEK-n. 12 euro balio duen txartela erosiaz, laguntzaile direla adierazten duen pina eta Euskal Herriko ehunka komertziotan beharpenak eskuratuko dituzte herritarrek.

Korrika omenaldirako sarrerak

Usurbilen antolatuta den Korrika 18-ko omenaldirako sarrerak salgai daude Muntteri-AEK eta Jalgi Kafe-Antzokian. Sarrerak 10 euro balio ditu eta honen barne daude, ekitaldiak eta txahalki pintxoak.

Korrika 18-aren arropa salgai

Korrika 18aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzetarian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai dago.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

— Sarean —

Wikipedian 1.000 sarrera gehiago euskaraz



Wikipedia entziklopedia digitalaren euskarazko edizioan 1000 sarrera gehitu dira. Euskarazko edizioa martxan jarri zenetik 112.000 sarrera daude entziklopedia honetan. Horien artean, hala nola, leku-izenak, pertsonaia historikoen izenak eta gizarte-gaiekin zer ikusia dutenak daude.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza politikarako Sailburuordetzaren ekimena da, eta sarrera horiek guztiak sarean jartzeko lan teknikoak Elhuyar Fundazioak egin du. Lan honek 2011ean martxan jarritako ekimenari jarraipena ematen dio.

Elhuyar fundazioak lan ederra egin du sarrera hauek txertatu baino lehen. Leheneik eta behin, beharrak eta hutsuneak aztertu ditu. Euskarazko wikipediako sarrerak gainbegiratu eta beste hizkuntzetako wikipediak konparatu ditu. Gerora, informazioa landu eta beste hizkuntzetako sarrerentzera egin dute.

Zerrenda horretatik hainbat sarrera kendu ziren, irizpide batzuk kontuan izanik. Eta azkenik, sarrera horien guztien artean, 1.000 aukeratu dira txertatzeko.



# Areto-futbola denboraldi erdian da

ISU Leihoak taldea sailkapeneko lehen postuan da denboraldiko lehen itzulia amaituta

**Lasarte-Oriako areto-Futboleko taldeek denboraldiko lehen itzulia amaitu dute dagoeneko. ISU leihoak taldea lehen postuan dago eta denboraldi amaiera arte postu honetan edo lau lehenetan sailkatzea da bere helburua. Aldaz H.K.-ren kasuan maila mantentzea izango litzateke helburua.**

Areto futbolak betidanik izan du lotura estua Lasarte-Oriarekin. Horren erakusgarri dira, besteak beste, Ostadarrek antolatutako XXX. Herriko txapelketa, edota kalitate handiko ISU Leihoak eta Aldaz HK taldeak.

Ostegunean, denboraldiko lehen itzuliko azken partida jokatu zuen ISU Leihoak taldeak Gure Txokoaren aurka. 6-2 irabazi zuen eta Gipuzkoako mailan sailkapeneko lehen postuan dago.

Eneko Molina entrenatzaileak partida gogorra aurreikusuten zuen eta horrela izan zen. ISU-ko entrenatzailearen hitzetan partida "parekatua" izan zen eta "azken minutuetan" erabaki zen guztia.

Lasarte-Oriako taldea ongi

ibiliz zen defentsan eta ateari begira, azken minutuetan izan zituen aukera gehienak. "2 eta 1 gindoazen eta minutu gutxitan sartu genituen gaitz nontzeko golak. Gure Txokoak gainera atezain-jokalaria atera zuen eta haiek galdutako baloiaz ongi baliatu ginen", adierazi zuen.

Molina pozik agertu zen emaitzarekin eta taldeak denboraldiko lehen zati honetan egindako lanarekin.

"Denboraldia zalantzekin hasi genuen. 5. jardunalditik aurrera partida guztiak irabazi ditugu, azken minututan izan arren", adierazi digu.

Honela postu honetan mantendu eta lehen lau sailkatuetan egotea da helburua orain. "Lehengorietan bada



Aldaz HK-k ostirallean Kirolegian jokaturako partiduko une bat.

hobe, finalerdiak etxean jokatuko aukera dago eta", aipatu zuen.

### Maila mantentzea helburu

Era berean, nazional mailan ostirala gauean jokatu zuen Aldaz H.K. taldeak Tolosala Hirukide taldearen aurka.

Denboraldiko bigarren itzulari hasiera eman zioten ostirala gauean jokatu zuen partida honekin, eta ezin izan zuten garaipena erdietsi, partida bizi baten ostean 4-5 galdu baitzuten Kirolegiko

norgehiagoka. Partidu "zaila" izan zela aipatu zuen Oscar Garcia Aldaz HK-ko prestatzaileak: "Hasieratik partidua maldan gora jarri zitzaigun, 1-4 aztetik ginela, guran sinezita hurbiltzea lortu badugu ere, ezin izan dugu errematatu, pena izan da".

Atzetik hasita, hirugarren postuan doaz eta bakarra jaitziko da. Aurtengo helburu argia "maila mantentzea" izango dela adierazi zuen Garcia.

### Herriko txapelketa

Bestalde, Ostadarrek antolatutako herriko txapelketan zazpigarren jardunaldia jokatu zen eta sei jardunaldi besterik ez dira falta finalerako fasean sartuko diren taldeak zein izango diren jakiteko.

Aipagarria da jardunaldi honetara arte partiduko guztiak irabazi zituen Txindoki taberna liderrak galdu egin zuela Bar El Puntoren aurkako norgehiagoka (1-3). Hala ere, sailkapeneko lehen lekuan jarraitzen du, Izkiña tabernari bi puntuko alde ateratzen baitio oraindik.

Jardunaldi honetako emaitzak kontuan izanda, Txindoki, Izkiña, El Punto, Buenetxea, ISU Leihoak, Izarra bitxitogia, Urdaneta eta Trumoi izango lirateke azken faserako txartela lortuko lukeen taldeak.

Hala ere, Balerdi Harategiak, Indaux eta Ana eta Soi ileapaindegia taldeek ere sailkatuen zerrendan sartzeko aukera daukate oraindik.

# Landaberri

## IKASTOLA eta INSTITUTUA

### AURREMATRIKULAZIOA urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

#### BILERAK:

- **DBH**koak urtarrilaren 30ean 18:00etan Pintore kalea 2an
- **HH eta LH**koak urtarrilaren 23an 15:15ean Garaikoetxea eraikinean

#### Matrikulatzeko tokiak:

**HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO** matrikulak. **Ordutegia: 09:00etatik 13:00etara**  
Garaikoetxea eraikinean • Tel.: 943 37 06 62 • landazuzendaritza@gmail.com

#### DBH-KO matrikulak

Pintore kalea 2an • Tel.: 943 37 28 90 • landabhi@euskaltel.net  
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:30etatik 11:30etara  
astelehena, asteartea eta ostegunean arratsalde 14:30etatik 16:00etara

**Pizzeria Bar Jabetxea Rummy**

**Etxean egindako masak**

**Giro berria, jende berria, Lasarte-Oria herriko pizzeri berria**

**Kale Nagusia 71**  
**20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 245565**

**Etorri probatzera!**

**Eguneko menua**  
Pizzak  
Hanburgesak  
Pintxoak